



0064 ZB.KO DEKRETUA

Oiartzun Haranean, bi mila eta hemeretzi urtarrilaren hogeita lauan.

Udal honek deituriko Administrazio Orokorreko Administrazioen lau lanpostu lehiaketa-oposaketa irekiaren bidez betetzeko deialdiarekiko Oinarriak 2018/11/20ko 223. zk.-dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu delarik, Toki Araubideko legeriak ematen dizkidan eskumenaz baliatuz, ondorengo ERABAKI DUT:

Lehena.- Hautaketa prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea, honako kide hauekin:

Lehendakaria:

- *Titularra: José Manuel Aduriz Cazabon, Oiartzungo Udalaren Langileria Arduraduna. Ordezkoa: Maria Victoria Joaristi Olariaga andrea, Oiartzungo Udal Idazkaria.*

Mahaikideak:

— *Titularra: Xabier Iriondo Arana jauna. Ordezkoa: Ricardo Ortega Gonzalez andrea jauna; biak ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendaturik.*

— *Titularra: Maria Jesús Otaegi Irureta andrea, Oiartzungo Udal Kontuhartzailea. Ordezkoa: Elixabete Jauregi Imaz andrea, Oiartzungo Udalaren Ekonomilari-Aholkularia.*

— *Titularra: Myriam Goikoetxea Zapiain andrea, Oiartzungo Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Arduraduna. Ordezkoa: Amaia Martin Aldasoro andrea, Oiartzungo Udalaren Gizarte Langilea.*

— *Titularra: Miren Josebe Iburguren Aduriz andrea. Ordezkoa: Jasone Susperregi Odriozola; biak ere Oiartzungo Udalaren karrerako Administrazioak.*

— *Titularra: Itziar Gallastegi Arregi andrea. Ordezkoa: Iratxe Etxebarria Arizmendi andrea. Biak ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendaturikoak, euskara probarako.*

Idazkaria:

— *Titularra: Maria Victoria Joaristi Olariaga andrea, Udal Idazkaria. Ordezkoa: Belen Goya Landa andrea, Oiartzungo Udalaren karrerako Administrazioa.*

Bigarrena.- Lehendabiziko azterketa, 2019ko otsailaren 28an egitea Madalensoro Udal Pilotalekuan goizeko 09:30etan.

Hirugarrena.- Onartutako izangaiei deia luzatzea aurreko puntuan aditzera emandako egun, leku eta orduan, Epaimahaikideak ordu erdi bat lehenagorako deiturik.

Laugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, hamar eguneko epea emanaz legezko erreklaazioetarako edo eta akatsak zuzentzeko.



Jexux Leonet Elizegi Alkate jaunak agindu eta izenpetu du, nik neuk Idazkari naizenez ziurtaturik.

